

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



G23/606 kontratazioa-Plegu teknikoak. 2022ko abendua

1

PLEGU TEKNIKOAK

INGURA

EUSKARA ONLINE IKASTEKO PLATAFORMARAKO A2 EUSKARA MAILAKO EGOERA-BIDEOEN EKOIZPENA

ZERBITZU KONTRATUA

ESPEDIENTE ZENBAKIA: G23 / 606



AURKIBIDEA

SARRERA

1.- KONTRATAZIOAREN HELBURUA

2.- EGOERA-BIDEOEN EZAUGARRIAK

2.1. FIKZIOZKO BIDEO DIDAKTIKOAK

2.2. BIDEOAK ETA ERATORRIAK

2.3. BIDEOTAKO GIDOIAK

2.4. EGOERA BIDEOEN SINOPSIK

2.5. BIDEOEN IZAERA ETA HIZKUNTZA

2.6. BIDEOEN IRAUPENA

2.7. AKTOREAK

2.8. BIDEOTAKO LOKALIZAZIOAK

2.9. AZPITITULUAK

2.10. ARTXIBO MOTAK

2.11. BIDEOAK SORTU ETA EKOIZTEKO BALDINTZAK

3.- AURREKONTUAREN DIRU-HORNIDURA

4.- EPEA ETA ZEREGINAK

5.- PROPOSAMEN TEKNIKOAK

6.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK: PROPOSAMEN TEKNIKOAK BALIOZTATZEKO

IRIZPIDEAK

SARRERA

HABEk helduen euskalduntzerako INGURA ingurune digitala sortuko du. Ingurune honen bidez, online metodo bat eskainiko du HABEk, hainbat gailu elektronikotatik euskarrikasleak nonahi eta noiznahi ikas dezan.

INGURA egitasmoaren lan-lerroetako bat euskalduntzearen maila guztietarako ikastaroak sortzea izango da. Oinarrizko mailetakako ikastaroak Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren (HEOC) ildo metodologikoei jarraikiz diseinatzeaz gain, badute berezitasunik: ikastaro hauek bideo-ikaskuntzan oinarrituko dira eta formatu honetan aurkeztutako edukia izango da jarduera didaktiko askoren ardatz.

A2 mailako ikastaroari dagokionez, egoera-bideoak izango dira ikastaroaren hezurduran eskainiko diren bideo-motak. LMS plataforma batean eskegiko dira eta egoera-bideoak ustiapen didaktikorako input modura erabiliko dira.

1.- KONTRATAZIOAREN HELBURUA

HABEren INGURA plataformarako A2 mailako fikziozko laurogei (80) egoera-bideo ekoiztea da kontratazioaren helburua.

Egiteko zehatzak hauek izango dira:

- Zuzendaritza teknikoa: lantaldearen koordinazioa eta plangintza egitea
- Aurreproduktzio, produktzio, errodaje, postproduktzio eta egokitzen tekniko-lanak egitea
- HABE-A2-Gidoien zehaztasunei jarraikiz, egoera-bideoak ekoiztea
- Aktoreen ardura eta zuzendaritza
- Bideoak azpigitulatzeara

2.- EGOERA-BIDEOEN EZAUGARRIAK

- **2.1. FIKZIOZKO BIDEO DIDAKTIKOAK:** A2 mailarako egokiak izango diren bideoak sortuko dira. Bakoitzak mailari dagokion egoera komunikatibo bat azalduko du. Egoera komunikatibo horiek HEOCean ageri diren funtzio, gai eta testu-generoen lagin izango dira.

- **2.2. BIDEOAK eta ERATORRIAK:**

- Laurogei (80) egoera-bideo ekoitziko dira.
- Grabazio-uneetan argazkiak aterako dira: bideo-ekoizpen bakoitzeko 5 argazki gutxienez.
- Bideo bakoitzeko audio-artxiboa ere aterako da: guztira laurogei (80) audio-artxibo.

- **2.3. BIDEOETAKO GIDOIAK:** laurogei (80) egoera-bideoak egitasmo honetarako berariaz sortutako HABEren gidioetan oinarrituko dira. Esleipenduna arduratuko da HABE-A2-gidioetan adierazitako intentzio komunikatibo, testu eta egoeren jarraipen eta betetze-mailaz.

- **2.4. EGOERA-BIDEOEN SINOPSIAK:** laurogei (80) egoera-bideo hauek bost (5) unibertsoan garatuko dira, unibertso bakoitzeko hamasei (16) bideotako multzoa osatuz. Unibertso bakoitza pertsonaia desberdinen bidez eta lokalizazio desberdinetan garatuko da. Hona hemen sinopsiak:

1.- Unibertsitateko ikasleak

2.- Amona eta biloba influencerra

3.- Pilartxoenea ostatua: Surf & Mountain

4.- Olaia eta Pello kazetariak

5.- Bi anaia

6

1. UNIBERTSOA: Unibertsitateko ikasleak

Unibertso honek, ardatz modura, unibertsitateko bi ikasle izango ditu: Mikel eta Ane. Biak ingeniarietza ikasten ari diren arren, nork bere berezitasunak izango ditu; Mikel ikasle-pisu batean bizi da eta Ane ikasleen egoitza batean. Unibertsitateko ikasleen artean ohikoak diren egoerak ikusiko ditugu, tonu umoretsuan eta jende interesgarriz inguratuta: liburutegian ikasten, ostegunetako pintxo-potean, nor bere bizilekuko martxa antolatzen, klasera bidean...

Bestalde, helburua elkarrizketa ireki eta jendetsuagoak sortzea denez, ikasleen egunerokoan bestelako pertsonaiak, bigarren mailakoak, ere integratuko ditugu, maiztasun batekin aterako direnak: beste karreretako ikasleak, pisukideak, parrandan eginiko lagunak, Erasmus programarekin hirira etorri den ikasle atzerritarra...Figuranteak ere aterako dira zenbait ataletan.

Pertsonaia nagusien deskribapena:

Mikel: Mutil esanekoa eta arduratsua. Etxetik kanpora joan den arren, bere kabuz ondo moldatzen da. Bere herriko talde batean baxua jotzen du.

Ane: Oso neska alaia, baina batzuetan tristea, oso goxoa baina batzuetan genio bizikoa eta batez ere, maitagarria. Bizitza intentsitate handiz bizi duen ameslaria. Ameslari gehienei gertatu ohi zaienez, eguneroko lanetan kaotiko samarra da.

2. UNIBERTSOA: Amona eta biloba influencerra

Unibertsorik umoretsu eta biziena. Adin tarte handia izanagatik, primeran elkar ulertzen duten amona eta biloba izango dira protagonista: Juani eta Aitor. Elkarrekin bizi diren amona-biloben artean, berez sortzen da samurtasun eta konfiantza handiko harremana. Kasu honetan, gainera, entretenimendua areagotuko duen elementu bat ere badago: Aitor influencerra da, logela lan egiteko bere tenplua da. Bertan grabatzen ditu erronkak, erreakzio-bideoak, jolasak...eta tarteka amona konplize bilakatzen du. Amona izatea guraso izatea baino askoz ere libreagoa denez, Aitorrek eta Juanik elkarrekiko harremanaz gozatuko dute umorez, autoritate kontuak alde batera utzita.

Bigarren mailako aktoreen artean, eta figurante gisa beste influencer batzuk, Aitorren guraso eta anai-arrebak, amonaren lagunak edo Aitorrek elkarrizketatzen dituenak leudeke, adibide gisa.

8

Pertsonaia nagusien deskribapena:

Aitor: 14 urteko mutiko maitagarria. Friki puntu bat du eta nerabea den neurrian aldarte handikoa da, oraintxe gozo, oraintxe zakar... Wifia da bere "konfiantzazko lagun" bakarra. YouTube, Instagram, TikTok... sare guztietan dabil. Ez da ikasle bereziki fina, ezta bereziki langilea ere, baina esanekoa da. Amonarekin konektatzen du, ondo konpontzen da, baina etxeke besteekin ez.

Juani: 75 urte ditu, eta sekulako sasoia. Gazte alargunduta, tristura eta sufrimenduari jaramon gehiegi ez egitea hobe dela ondo ikasia du. Zentroko lagunekin egotea gustatzen zaio, nahiz eta, bere esanetan, ez dioten erritmoa jarraitzen. Erritmo horretara egokitzen den bakarra Aitor biloba da.

3. UNIBERTSOA: Pilartxoenea ostatua Surf & Mountain

Ramon eta Pilartxo herriko ostatuko jabeak dira. Negozio apala da, xumea, baina iraungitzen ez dena. Mendia eta hondartza (surfa), bietara joateko aukera eskaintzen du herriak, eta bisitari asko gerturatzen da bertara,

lotara, edo baita jatetxe edo tabernara. Herritarrek maite dute ostatua, turistei arreta eskaintzen dien arren, jabeek bertakoak ere primeran zaintzen dituztelako.

Unibertso honetan senar-emazteen gorabeherak ikusiko dira, ostatua ez ezik, euren arteko enpresa ere kudeatu behar baita. Bikotearekin batera, Mikel, ostatuko langilea, ere protagonista izango da. Testuinguru horretan etengabe pasako dira bisitariak: banatzaileak, informazio eske datozen turistak, herritarrak... Batzuk bigarren mailako pertsonaia izango dira, besteak figurante.

Pertsonaia nagusien deskribapena:

Ramon: *58 urteko gizon apala. Ostatuko sukaldaria da, kozinatzen oso trebea. Lana egin, ingurukoak gustura daudela ikusi eta tarteka bezeroren bat ziztatzea dira bere kezka nagusiak.*

Pilartxo: *55 urte. Ostatuko motorra. Bizia, zorrotza eta langilea. Berezkoa du lidergorako sena, ostatuaren gidaritzan eta Ramonekiko harremanean.*

Mikel: *Ostatuko hirugarren langilea. 35 urte ditu eta ofizio zehatzik ez: garbiketa, mantenu-lana, enkarguak... dagoenari heltzen dio. Satellite samarra den arren, eskulangile fina da. Rock-musika izugarri gustatzen zaio.*

4.- UNIBERTSOA: Olaia eta Pello (II)

A1 mailako egoera-bideoei jarraipena emanez, A2n ere aurkituko ditugu Pello eta Olaia kazetaria eta kameraria. Euskal Herrian barrena dabilta jendea elkarrizketatzen eta erreportajeak grabatzen. Aitzakia polita dira euskal kulturaren erreferentetzat jotzen ditugun parajeak (Euskal Herriko Iparraldeko eta Hegoaldekoak) erakusteko, postal baten moduan. Pertsonaia nagusiak Olaia eta Pello izango dira, eta bigarren mailako eta figuranteen artean, berriz, beste lankide batzuk, kuadrillako lagunak, elkarrizketatuak...izango ditugu.

10

5. UNIBERTSOA: Bi anaia

Ekhi eta Beñat anaiak dira, haien bizipenak, zaletasunak, planak, lagunartea... azaltzea da helburua. Gustukoa duten zerbaitetik abiatuta (zaletasuna) ia dena elkarrekin egiten duten bi anaia dira, baita lana ere. Biak oso kirolariak dira, triatloian eta mendi-lasterketetan ibiltzen dira. Aukera honek kirola (mendia, korrika, igeri eta txirrindularitza), aisialdia, asteburuko planak, lasterketak (hemengoak eta nazioartekoak) nutrizioa, gorputz-atalak, gihar-kontuak, entrenamendua, denbora, luzera, mina, lesioak, esfortzua... aurkezteko testuingurua ematen du.

Pertsonaia nagusiekin batera, haien guraso eta anai-arrebak, beste kirolari batzuk, eta lankideek osatuko dute unibertso honetako bigarren mailako pertsonaien eta figuranteen multzoa.

Pertsona nagusien deskribapen orokorra:

Bietako bat Adonis xamarra eta oso lehiakorra da. Bestea, berriz, ez da bere gorputzari begira bizi eta ez da hain lehiakorra.

- **2.5. BIDEOEN IZAERA eta HIZKUNTZA:** Bideoak motibagarriak eta komunikazio errealaren eredu izango dira testuinguruaren ezaugarriei, gaiei, kultur erreferentziei, testu-generoei, funtzioei zein adierazpide testual eta linguistiko-lexikoei dagokienez.

Euskararen ahozketasunaren ezaugarriak islatuko dira bideoetako elkarrizketetan. Bideoetako hiztunen intentzio komunikatiboa ahozko eredu etako hizkuntza-baliabide ugari eta aberatsez aurkeztuko da (harridura, zalantza, haserrea, intonazioa, etenak, errepikapenak...). Alegia, ahozkoak diren hizkuntza-ereduak.

Bideoetako solaskideen hizketa-erritmoa naturala izango da eta ahoskera garbikoa, hizkuntza-erabiltzaile arruntaren parekoa.

A2 maila honetan testuingurua irudikatzeke, soinu nahiz irudi bidezko elementu orok duten indarra eta zeresana kontuan izanda, ekoizpenetan erabiliko diren

soinu, argazki, irudi, ilustrazio nahiz grafikoak esanguratsuak, kalitatezkoak eta egoerari egoki erantzungo diotenak izango dira eta beharrezkoa denean, propio sortu eta txertatuko dira. Hauek guztiek, halaber, egungo Euskal Herriko giza eta gizarte-errealitatea irudikatuko dute.

- **2.6. BIDEOEN IRAUPENA:** 16 bideoko multzoek iraupen progresiboa izango dute, 1m30s-tik 2m30s-ra, bideoek izango dituzten sarrera-irteera karetez gain.
- **2.7. AKTOREAK:** Bideoetan irudikatuko den egoera bakoitzean 2 edo 3 protagonista nagusi azalduko dira, beren artean ezagunak direnak edo harreman estua dutenak. Guztira, 11 aktore nagusi behar dira.

Tarteka beste solaskide batzuk agertuko dira, baita pertsona ezagunak edo euskal gizartean erreferentziazko direnak ere, egoerak eta inputa bera aberastuko dutenak.

Figuranteen artean genero-ikuspegi orekatua izatea edo emakumeen aldeko diskriminazio positiboa egitea hobetsiko da.

HABEri aktoreen aukeraketaren berri aldeaz aurretik emango zaio. Proposamenak ez baditu HABEren irizpideak asebetetzen, HABEk beste aktore bat edo batzuk eskatzeko aukera izango du.

- **2.8. BIDEOETAKO LOKALIZAZIOAK:** Gidoietan ageri diren lokalizazioetan egingo dira grabazioak, leku itxi nahiz irekietan. Grabazioak leku errealetan egingo dira, hainbat kamera, atrezzo, jantzi, argiztapen eta soinu egokia erabiliz; egoera bakoitzaren testuingurua ahalik eta benetako eta sinesgarriena irudikatuko da. Egoerak Euskal Herriko herri-hirietan grabatuko dira. Leku edo pasarte birtualak ere txertatu ahal izango dira: bideo-deiak, txat-mezuak...
- **2.9. AZPITITULUAK:** Bideoak azpтитuluz hornituko dira. Maila honetarako osagarri didaktiko aberatsa izaki, bideo guztiek gidoia azpтитuluetan eskainiko dute. Azpтитuluen hizkuntzak: euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa izango dira. Gidoien itzulpenak HABEk jarriko ditu esleipendunaren eskura.
- **2.10. ARTXIBO-MOTAK:** bideoak .mp4 eta VOB artxibo-motakoak eta audioak .mp3 eta WAV artxibo-motakoak izango dira. Azpтитuluak, berriz, SRT formatukoak izango dira eta .jpg argazkiak.

- **2.11. BIDEOAK SORTU ETA EKOIZTEKO BALDINTZAK:**

2.11.1. Bideoak proiektu honetarako berariaz sortuak izango dira, eta aurreko puntuetan zehaztutako eta adierazitakoak betez diseinatuko dira. 80 egoeraz osatutako bilduma hau egungo irizpide estetikoek jarraikiz sortuko da eta bildumak diseinu bateratua izango du.

2.11.2. Bideo guztiek hasierako karatula bat eta bukaerako kredituak izango dituzte. Karatula nahiz kredituetako edukiaren proposamena esleipendunak luzatuko dio HABEri honek onar dezan. Egoera-bideo guztiek sintonia bat izango dute, bideoaren hasieran eta bukaeran.

2.11.3. Grabazio-uneetan HABEko teknikari bat egongo da gidoi-tako hizkuntzaren betetze-maila eta kalitatea bermatzeko.

2.11.4. Bideoen eduki eta aurkezpen-moduek giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetzaren balioak errespetatuko dituzte. Ondorioz, ezin izango dituzte agerian eduki, horiei dagokienez, herritarrentzako laidogarriak izan daitezkeen, erabiltzaileen duintasuna urra dezaketen, indarkeria, joera ideologiko edo publizitatea iradokitzen duten ideia, ikur edo elementuak.

2.11.5. Bideo guztietan hitzezko zein irudizko hizkuntza ez-sexista erabiliko da. Halaber, ez da sexua dela-eta eragindako bereizkeriarik egingo, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak dioena betez.

2.11.6. Proiektu honen izaera edo bere atalen bat bereziki aberastu eta azken produktuaren zati izango diren osagarriak –irudi, soinu, testu edo beste edozein multimedia-objektu (joko, animazio, infografia....)– beste egileren batenak edo esleipendunaren beraren beste produktu batetik eratorriak direnean, erabilera-baimen guztiak eskuratuak beharko ditu izan esleipendunak, betiere, agiri administratiboan zehaztutakoa eta egile-eskubideei buruz indarrean dagoen araudia betez.

- **2.11.7.** Entregableen kudeaketari dagokionez, behin karatula, kredituak eta sintoniak adosten direnean, HABEk postproduktzio fasean egingo ditu kontraste-lanak.
- **2.11.8.** Bideoetako aktore guztiek euskararen ahoskera zainduari jarraikiz (https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0087.pdf) ahoskatuko dituzte gidoiak. Euskararen ezaugarri fonetiko eta fonologikoak aintzat hartuko dituzte,

bideo hauetako hizkera euskararen ahozketasunaren eredu izango baita. Aktoreek, beraz, estuki zainduko dituzte ahoskera, intonazioa, doinua, azentua eta gainerako ezaugarri fonetiko-fonologikoak. Intentzio komunikatiboaren arabera, hizketa-erritmoa naturala izango da eta ahoskera garbikoa, hizkuntza-erabiltzaile arruntaren parekoa.

3.- AURREKONTUAREN DIRU-HORNIDURA

Egitasmo honek **80.196,48 €**-ko aurrekontua du (BEZa barne)

Aurrekontuaren kalkulua	
Lan-kostua	64.800
Azpiegitura-gastuak	8.424
Industria-etekina	3.888
GUZTIRA (BEZ	
gabe)	77.112
BEZ (%4)	3.084,48
Guztira (BEZ barne)	80.196,48 €

4.- EPEA ETA ZEREGINAK

Oinarri teknikoen agiri honetan zehaztutako ekoizpen-lanak kontratua esleitu eta **5 hilabeteko epean** egingo dira.

Zereginak:	egutegia:
<ul style="list-style-type: none">1. unibertsoa: 16 bideo (azpтитulu eta guzti) eta 16 audio-artxibo eta argazkiak2. unibertsoa: 16 bideo (azpтитulu eta guzti) eta 16 audio-artxibo eta argazkiak3. unibertsoa: 16 bideo (azpтитulu eta guzti) eta 16 audio-artxibo eta argazkiak	<ul style="list-style-type: none">2023ko maiatza

<ul style="list-style-type: none">• 4. unibertsoa: 16 bideo (azpтитulu eta guzti) eta 16 audio-artxibo eta argazkiak• 5. unibertsoa: 16 bideo (azpтитulu eta guzti) eta 16 audio-artxibo eta argazkiak	<ul style="list-style-type: none">• 2023ko uztaila
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------

5.- PROPOSAMEN TEKNIKOA

Lehiakideek HABEk emandako gidoi bat oinarri duen A2 mailako ereduzko **egoera-bideo bat** ekoiztuko dute eta mp4 formatuan aurkeztuko dute. Bideoaren iraupena gutxienez bi minutukoa eta gehienez hiru minutukoa izango da.

Egoera: Goiza da. Ane oinez doa, klasera bidean. Bidean doala, Mikel elkartuko zaio.

Ane: Aupa, Mikel!

Mikel: Egun on.

Ane (*Mikelen begiak seinalatuz*): Aizu, a zer begizuloak!

Mikel (*begiak igurtziz*): Bai? Ez dakit, ez naiz ispiluaren aurrean jarri.

Ane: Ba, begizuloak dituzu. Gaizki lo egin duzu?

Mikel: Ez. Ondo. Tira, ondo, baina gutxi.

Ane (*tonu bihurrian*): Zer, atzo parranda?

Mikel: Nik? Ez. Pisukideek.

Ane: Etxean parranda egin zuten?

Mikel: Ez, ez. Pisukide batek ligatu egin zuen atzo.

Ane: Utzi asmatzen. Uxuek?

Mikel: Uxuek.

Ane: Kar, kar!

Mikel: Eta goizeko ordu bata arte han ibili dira...

Ane: "Parrandan"! (*keinu bihurri baten bidez pisukidea eta bere ligea txortan aritu direla adieraziko du*)

Mikel: Horixe! Kar, kar!

Ane: Tira, hurrengoan zuk ligatuko duzu.

Mikel: Baina gaur ez, gaur nahiago dut lo egin.

Ane: Ez izan zozoa, Mikel! Egunero egiten dugu lo, baina ligatu...

Mikel (*bat-batean gaia aldatuz*): Ane, ze daukagu orain?

Ane (*pentakor*): Ea, asteartea, bederatzietan... praktika-saioak!

Mikel: Puf. Eta ondoren?

Ane: Ondoren...

(Ane pentsatzen ari den bitartean, hirugarren ikaskide bat agertuko da bien tartetik eta ezustean harrapatuko ditu.)

Ikaskidea: Egun on, bikote!

Mikel eta Ane: Ai ama!

Ikaskidea: Tira, kontzentratuta zaudete biak, e?... zertan ari zarete?

Mikel: Gaurko ordutegia errepasatzen.

Ikaskidea: Ba, apuntatu: gaur, iluntzeko zortzietan, gure pisuan afaria. Eta gero...

Ane: Eta gero?

Ikaskidea: eta gero, eta gero... ba... batek daki! (*irribarre txiki batekin, sorpresaren bat egon daitekeen aurpegia jarritz*)

Ane: Hori da! Batek daki! Kar, kar! (*Mikel keinu eginez*)

Mikel (*keinua harrapatu du*): Bihar egingo dut lo!

6.- ESLEIPEN-IRIZPIDEAK: PROPOSAMEN TEKNIKOAK BALIOZTATZEKO

IRIZPIDEAK

10 punturen banaketa honela gauzatuko da. Plegu administratiboan ezarri denez, 50 punturen gainean egingo da lizitazioko balorazioa. Bideo hauen hartzailea eta helburua kontuan hartuko dira, adierazle hauek zehazteko.

Adierazleak	Kontuan hartuko da	Puntuen banaketa	Gutxienekoa
Planoak	Kontaktetarako oinarri izatea: Testuinguru orokorra emateko, erreferentziazko elementuak nabarmentzeko...	Puntu 1	0.5 puntu
Egitura eta erritmoa	Irudien sekuentziazioa eta edukien garapena	Puntu 1	0.75 puntu

Iraupena	Egoeraren araberakoa, proportzioak eta neurriak	0.75 Puntu	0.30 puntu
Aktoreak	<ul style="list-style-type: none">• Interpretazioa: intentzio komunikatiboa• Lokuzioa• Euskararen ahoskera	2 puntu	1.75 puntu
Lokalizazioa	Gertaera eta gidoiarekin bat egitea	Puntu 1	0.5 puntu
Argiztapena eta soinua	Girotzea Adierazkortasun-maila Ulermenerako lagungarria Efektuak, musika...	Puntu 2	Puntu1
Ekoizpena eta estiloa	Alderdi estetikoa, konposizio orokorra, estilo berritzailea, helburu linguistikotik kanpo ere baliagarria izatea	1.5 puntu	1.2 puntu

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



G23/606 kontratazioa-Plegu teknikoak. 2022ko abendua

Karatula, sintonia eta kredituak	Egokitasuna, estetika eta adierazkortasuna	0,75 puntu	-
GUZTIRA		10,00 puntu	6,00 puntu

23

